

garabide
2019



EUS

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa	05
Formazioa eta aholkularitza:	06
Formazioa Euskal Herrian: Ikastaldia	08
Formazioa Euskal Herrikan kanpo: Yucatan	10
Formazioa Euskal Herrikan kanpo: Cauca	11
Aholkularitza – Bidaide programa:	12
Amazighak (Aljeria eta Maroko)	16
Guaraniak eta Aimarak (Bolivia)	17
Maia Kachikilak (Guatemala)	13
Maputxeak (Wallmapu)	14
Nawat komunitatea (Mexiko)	15
Euskal Herriko ekintzak	19
Sentsibilizazio ekintzak	20
Bisita didaktikoak	22
HINU	24
Elkarlana Euskal Herriko eragileekin	26
Komunikazioa	29
Tresna propioak	30
Kanpo komunikazioa	31
GARABIDEn egitura	32
Diru-kontuak	33
Erakunde babesleak eta erakunde laguntzaileak	34
Erakunde babesleak	34
Erakunde laguntzaileak	36



Garabide ilusionagarri

Euskara uharte bitxi bat zelakoan eman ditugu urte luzeak; Europako mendebaldean dagoen kasu bitxi eta bakanetakoa. Geure zilborrari begira izan gara, eta horrek itsutu gaitu perspektiba irekiagoa eta osatuagoa ikusi ahal izateko.

Garabideren lanak begi bistan jartzen ohi du errealitatea oso bestelakoa dela, Hegoaldeko komunitateen ispiluan geure burua beste modu batera ikustaraziz: ez gara uharte bakarra, hizkuntza gutxituen artxipelago erraldoian puntutxo bat baizik.

Hegoaldeko hizkuntza gutxituen aldeko lana, gure hizkuntzaren aldekoa ere bada. Hizkuntza komunitate gutxituen egoera birbideratzeko lanak ikuspegi holistikoa eskatzen du, ez soilik linguistikoa, egun munduan nagusitzen diren balio eta dinamika orokorrak amiltzera garamatza eta. Egoera horretan, bestelako bizi-baldintzak sortzeko premia partekatzen dugu hizkuntza komunitate gutxitu guztiok. Denok gaude gurdi berean, globalizazioak bultzatutako dinamika orojaletik libratzeko asmoz. Mehatxu horri aurre egin ezean, zaila baino zailagoa izango da halako hizkuntza komunitateen biziraupena.

Bide katramilatsu horretan Garabide proiektu ilusionagarria da, eta bere sarean katigatuta gelditzeko arriskua darama bere baitan. Hala parte-hartzaile iraunkorrak nola noizbehinkako kolaboratzaileak, Garabidek sorginduta gelditzen dira. Beste horrenbeste gertatzen zaie Hegoaldetik ikastaroetara hurbiltzen zaizkigun lagunei ere.

Saia gaitezen, beraz, hurrengo urteetan ere bide beretik jarraitzen!

Itziaki Martínez de Luna
Garabideko lehendakaria

FORMAZIOA

eragiteko ikasiz



· formazioa euskal herrian ·

Ikas- taldi- dia

IKASTALDIA. Hizkuntza Gidaritzari Buruzko Ikastaldia ospatu dugu Aretxabaletan urrian zehar. Hilabeteko iraupena duen ikastaro honen bigarren edizioa izan da aurtengoa eta Garapenerako Lan-kidetzaren Euskal Agentziak eta Beasaingo Udala-ren babesarekin antolatua izan da.

Aurtengo formazio honetan 16 partaide indigena izan ditugu gurean, gehienak Hego Ameriketako herri indigenen ordezkariak: **Maputxe**, **Guarani** (Bolivia), **Aimara** (Bolivia), **Kitxua** (Ekuador), **Nasa** (Kolonbia), **Kaqchikel** (Guatemala), **Kiche** (Guatemala), **Nawat** (Mexiko), **Yukatango Maia** (Mexiko). Hego Ameriketako lagunekin batera Afrika Iparraldeko **Amazigh** ordezkaria ere izan dugu gurean, Rifetik etorria.

Ikastaldi honetara haien hizkuntzak biziberritzeko prozesuetan gidari lanetan aritzen diren edo aritu daitezkeen pertsonak etorri dira; gidari profilekoak alegia. Kargu instituzionalak edo politikariak izan dira gurean aurtengoan, eta horiekin batera elkarte edo mugimendu sozialetako pertsona klabeak.

Aurtengo Ikastaldiak berezitasun bat izan du. Izan ere, ikastaldira etorri aurretik hasi behar izan zuten lanean ordezkari indigenek, eta Euskal Herrira etxeko lanak ondo beteta etorri dira. Haien erakunde eta hizkuntza komunitateen egoeraren diagnostiko kolektibo bat egin zuten komunitateko eragile eta erakunde ezberdinekin. Horrez gain, diagnosi horretan hizkuntza biziberritzeko erronka orokorrak definitu zituzten. Ondoren, Ikastaldian jasotako formazioa lagun zutela, Ikastaldiko azken astean erronka horiei forma eman diete Iñaki Martinez de Lunak gidatutako saioetan.

Euskal Herrian egindako formazioa 180 ordukoa izan da orotara, eta Garabidek antolatzen dituen formazio guztietan bezala, euskalgintzak bidelagun izan ditugu oraingo honetan ere formazioa ahalik eta osoena izan dadin. Euskalgintzako eta erakunde publikoetan lanean diharduten 16 irakasle izan ditugu gurean klase ematen. Tartean, esaterako, **Jasone Mendizabal**, **Belen Uranga**, **Patxi Baztarrika** edo aurretik aipatutako **Iñaki Martinez de Luna**



16
partaide



180
ordu



16
irakasle



19
irteera



bera. Hala ere, klase ordu hauek formazioaren parte bat bakarrik dira. Klase ordu hauek osatzeko hainbat bisita didaktiko egin ditugu herri indigenetako ordezkariak euskararen biziberritze esperientzia bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dezaten. Orotara, 19 irteera didaktiko egin ditugu Euskal Herriko txoko ezberdina ezagutuz eta euskalgintzako eragileen eta ordezkari indigenen arteko elkarriketa mamitsu bezain interesgarri bide emanez. **Seaska**, **Aiaraldea Ekintzen Faktoria** edo **Errigora** bezalako proiektuak ezagutzeko aukera izan dugu irteera didaktiko hauetan.

Dena den, guztia ez da “formazioa” izan Ikastaldi honen baitan. 16 ordezkari indigenekin elkarbizitza egitea, bada bakarrik bere horretan pagatu ezinezko irakaspen trinkoa. Hilabete honetan hainbat esperientzia eta sentimendu partekatze aukera izan dugu Garabidetarrok eta formazio honen parte izan diren guztiek. Bazkalondoko elkarriketek edo klaseak bukatu ondorengo hitz aspertuek ere osatu dute 2019 urteko Ikastaldi hau. Alegia, urrian zehar egindako Ikastaldian hainbat iturritik edan ahal izan dugu; teoriatik, praktikatik eta nola ez emoziotik.

Mugimendua ereiten

MAIA
YUKATEKOAK



MEXIKO. Maia yukatekoen egoerak kolore bereziak ditu. Batetik, indargune potentzial ezohikoak: tamaina erlatiboa, hizkuntzaren uniformetasuna, tradizio idatzia, transmisio gune batzuk. Bestetik, toki gehienetan ezaguna zaigun gainbehera prozesu larriaz gain, ahulgune aipagarri bat: inolako artikulaziorik eza hizkuntzaren inguruan ari direnen artean, eta mugimendu tradiziozko eza.

Egoera bakoitzak artisautza (edo arte?) desberdina eskatzen du, eta yukataneko maien kasuan honetan jarri dute eta dugu lehentasuna: hizkuntzaren aldeko mugimendu bat sortzen hastea, maiaren etorkizunari buruzko proiektu artikulatu batekin, orain eskala oso txikian gauzak egiten ari diren talde isolatuetatik harago.

Norabide horretan, 2019. urtean bukatu genuen Yukatanen bertan 'koadroak' formatzeko antolatutako Ikastaroa, aurreko urteko udan hasitakoa. Ikastaro horren azken moduluetan, denon artean maiaren egoeraren arloko diagnostikoa egin genuen, eta diagnostikotik abiatuta, maiara biziberritzeko proiektu artikulatuaren ildo estrategikoak marraztu genituen.

Yúuyum ekartea legeztatu dute bertako hainbat eragilek, eta berau izango da mugimendua pizten hasteko tresna. Elkarteko lagunek, aipatutako ildo estrategiko horien gainean, lehentasun ariketa egin dute, eta finkatu dituzte datozen urteetarako lan-ildoak: a) eragileen aktibazio eta artikulazioa eta b) motibazio eta jarreraren arloan eragiteko diskurtso-lanketa eta gizarteratzea. Bi ildo horiei jarraiki, 2019. urtean hainbat lani eman zaie hasiera. "Waye" dokumentala ekoiztu da MUko ikasleen lanaren bidez, Meridako (hiriburu nagusiko) udalean hizkuntza plangintzaz arduratuko den idazkaritza osatu da, Maia idazleen biltzarra antolatu da, bi herritan maia biziberritzeko tokiko prozesuak martxan jarri dira, eta oro har, proiektu artikulatua osatzeko pertsona-nukleoa indartzeko lanak egin dira. Eta, pauso garrantzitsu moduan, mugimendua sortzen eta artikulatzen hasteko esku-hartze eredua eta egituratze eredua diseinatu dira.

Beasaingo udalaren laguntzan oin hartuta, 2020rako oinarriak bideratu ditu joan den urteko lanak.

Bortizkeria egoera gaindituz, lanean

CAUCA



KOLONBIA. Kolonbiako Cauca Departamenduko Iparraldean Garabidek bertoko CECIDIC (Centro de Educación, Capacitación e Investigación para el Desarrollo de la Comunidad) ikastetxearekin eta UAINN (Universidad Autónoma Indígena Intercultural) unibertsitatearekin 2 urteko Formazio Teknikoa antolatu eta abian jarri du: Khakeçx üus dxi'jan kwe'sx yuwes kçxhächxhájxa' / Nasa Yuwe hizkuntzaren biziberritze-prozesuetako kudeatzeko ikastaroa.

Ikastaroak 2 urte iraungo du (2019-2020) eta 800 eskola-ordu, ikerketa-proiektua eta tutoretza izango ditu. 55 nasa ari dira ikastaroa jarraitzen, zein irakasle nasek eta euskaldunek taldean irakasten duten.

Trebakuntzak 5 lerro nagusi ditu: 1) kulturaren, identitatearen eta kosmobisioaren oinarriak eza-gutaraztea, 2) nasa yuweren hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa aztertzea, 3) nasa yuwe hizkuntzaren alfabetatzea, 4) nasa yuwe hizkuntzaren biziberritzerako hainbat arlotako estrategiak, teknikak eta metodoak garatzea, hala nola, hezkuntza-arloan, helduen irakaskuntzaren ar-

loan eta hizkuntza-plan-gintzaren eremuan, eta 5) nasa yuweko kultur-ekoi-zpena sustatzea.

Ahalegin berezia egin da saio gehienetan nasa yuwe hizkuntza erabiltzeko, ahozkoan zein idatzian.

Hala ere, Kolonbiako Cauca Iparraldeko eskualdeak 2019ko azken lauzpabost hilabetetik hona bizi duen bortizkeria-egoera latzak zenbait saio etetea behartu gaitu, zein 2020ko hasieran gauzatu diren.

Formazio honetaz gain, hainbat material egin dira nasa yuwe hizkuntzan, zein azken 10-15 urtetan ari da idatzian lantzen. Materialik deigarrienak helduei jatorrizko hizkuntza irakasteko Nya-fx Fxidx izenekoa da (A1 eta A2ren erdia biltzen duena), Fxijxya piyawa' (alfabetatzeko liburua), Yu'çe tasx kajiyunxi (senda-belarrez ikasten) eta Umnxi kajiyunxi (ehuntzen ikasten) liburuxkak.

Formazioaren helburua nasa yuwe hiztunak hizkuntza idatzian trebatzea da, jatorrizko hizkuntza biziberritzerako era guztietako materialak sortuz.

han eta hemen elkarlanean bidea egiten

12

Egunerokoan etorkizuna eraikitzen

KACHIQUELAK



GUATEMALA. Garabi-
den urte luzez aritu gara
hizkuntza lankidetzan
Guatemalako kaqchikel ko-
munitateekin eta berriki eza-
gutu ditugu kiche-ak. Bertako
hizkuntza eragileek deitu gin-
tuzten, zehazki hezkuntzaren alo-
rrean etxetik hizkuntza gutxitua ez dakar-
ten hurrekin eta euren familiekin nola lan egin
galdezka. Hortaz, Aste Sainduko turista artean
kamuflatuta, Guatemalara bidean abiatu zen lau
kideko taldea: Tafallako eta Arizmendi ikasto-
letako kideekin batera Garabideko ordezkaria.

Testuingurua ezagutzeko, Guatemalan 25 hi-
zkuntza daude aitortuta gazteleraz gain. Ki-
che-a da hiztun gehien dituen, milioi bat in-
guru (populazioaren %5,8), eta kaqchikelak
milioi erdi ditu. Egoera eta bilakaera desberdi-
nak izan arren, nabarmentzekoa da bi komuni-
tateek hezkuntzatik ekin ziotela nagusiki euren
hizkuntzen biziberritzeari.

Hezkuntza publikoan ez dago murgiltze ere-
durik hizkuntza indigenetan eta Hezkuntza
Elebiduna deitutakoak ez du elebidunik sortu
hamarkadetan. Horregatik sortu zuten duela

hamarkada luze Ruk'u'x
Qatinamit eskola sarea
eta, gaur egun, kaqchi-
kelezko murgiltze ere-
duan lanean ari den proiektu
bakarra da. Hezkuntza eredu
propioa lantzen aritu dira iden-
titatea eta hizkuntza oinarri hartuta.
Dagoeneko ari da emaitza nabariak lortzen
eta komunitatean erreferente bilakatzen ari da.

Lau euskaldunek eskola sarea bisitatu zuten,
ikasleak ezagutu eta nola lan egiten zuten iku-
si eta gero bilerak egin zituzten zuzendariekin,
irakasle taldeekin eta gurasoekin. Bileretan hi-
zkuntzaren biziberritzearen gaineko kontzien-
tzia landu zuten nagusiki. Gainera, esperientzia
truke horretan lau eskolako irakasleen lehen
topaketa egin zen tailer formatuan, hala eska-
tuta, metodologia trukea egiteko.

Kiche komunitatean, aldiz, eskola publikoan
hezkuntza elebiduneko kiche irakasleak ari dira
biziberritze lanetan eta txalotzekoa da, mu-
gak-muga, egiten ari diren bidea. Hezkuntza
ordezkarien eskutik topaketa antolatu zen eta
argi utzi zuten biziberritze lanerako duten gri-
na.

13

2019a mugarri Wallmapun

MAPUTXEAK



WALLMAPU. Wallmapun aurretik egiten ari zen lanari bultzada bat emateko balio izan du 2.019ak. Batez ere Araucanian lan egiten duen Mapuzuguletuaiñ elkar-teak urteak daramatza helduei mapuzuguna irakasten, eta azken urteak garrantzia handia izan du bide horretan jarraitzeko. Los Rios eskualdean lan egiten duen Koz Koz Parlamentuak ibilbide politiko oparoa egin du azken urteotan maputxeen statusa hobetzeko, eta 2.019a mugarri izan da hizkuntzaren gaia mahai gainean jarri eta horren aurrean erabakiak hartzeko.

Uztailean bertara eginiko bisitan Zornotzako barnetegian irakasle den Maider Leibarrek unitate didaktikoen sorkuntzarako gakoien inguruko ikastaro bat eskaini zien Mapuzuguletuaiñ elkarte-ko irakasleei. Garrantzia handiko astea izan zen

hura, mapuzugunaren kurrikulum txiki bat sortzea-rekin batera hizkuntza hiru modalitatetan erakusteko hautua egin baitzuten: aste-roko aurrez aurrekoetan, on line eta 10 eguneko barnetegietan. Hiru horietarako material bereizia sortuz klaseak emateko modua sistematizatu ahal izan zuten.

Panguipulli herriko Koz Koz Parlamentuak bertako udalean maputxeen ahotsari lekua eginez emaitza garrantzitsuak lortu ditu: agenda kulturalean leku bat eskuratu, tokian tokiko elikagaiak saldu ahal izateko merkatu bat eraiki edota herriko enparantzan egoitza irekitzea izan dira besteak beste lortutakoak. 2.019a mapuzugunaren biziberritzearen gaia mahai gainera ekarri eta haren ezagutza eta erabileraren inguruko erabakiak hartzen hasteko mugarri izan da.

Teoriatik praktikara

TOSEPAN



MEXIKO. Urte osoan zehar indarrean izan da Tosepanen 2018 apirilean diseinatutako hizkuntza plana.

Urte osoan zehar lanerako bide telematikoak erabili baditugu ere, azaroan euskaldunen bisita bikoitza izan dute.

Azaroaren lehen hamabostaldian Garabide eta Emuneko ordezkariak Cuetzalan-en izan dira indarrean den planaren ebaluazioa egiteko eta aurrera begirako ildoak finkatzeko.

Aurrera begirako dinamikan bi elementu berrik sekulako garrantzia dute: batetik, Alvaro Aguilar (Tosepan taldeko aholkulari nagusia) eta Amelia Dominguez Garabidek antolatutako Ikastaldian izan ziren eta pilak kargatuta eta ideia berriekin buelta ziren Euskal Herritik eta, bestetik, Tosepanek presentzia du 2 hizkuntza

gutxitu bizirik dauden eremuetan: nawat-a eta Totonakúa. Orain arteko lana nawat hizkuntzaren biziberritzean egin da, aurrerantzean totonakúaren aldeko dinamika ere martxan jarriko da. Hiru osagai horiekin, plan lingüistiko-identitario bakarraosatzen bukatu da urtea.

Horrez gain, aipagarria da urte bukaeran egin dako asanbladan 2020. urtea “El año de la revitalización de nuestras lenguas maternas originaria: nawat y tutunakú en la Tosepan” izendatu da.

Gaia aldatuaz, bigarren bisita Eskoriatzako Luis Ezeizako 2 irakaslek egin zuten azaroaren 2. hamabostaldian eta bisitaren helburua Tosepan-eko eskolan “Hizkuntza inmersio plana” martxan jartzeko lehen urratsak egitea izan da.

Azul zuri lagun amazigh hori

AMAZIGHAK



MAROKO. Arabierak inguratutako artxipelagoa da komunitate amazigha Afrika iparraldean. Eta tamazigha bere arnasa: azul ohiko agurra, konplizitate keinua.

Egoera politikoak baldintzatu du hein handian amazighekiko harremana. Hirak errebolta bizi dute Rif en eta baita Kabilian ere, estatuaren esku-hartze militarra tar-teko, bi eskualdeko bizikidetzak eta giza eskubideak erabat baldintzatuta. Baina, era berean, ezin ahaztuko dugu gatazkaren erroetan badela jatorrizko hizkuntza eta kultura biziberritzeko gogo bizia ere.

Kinkaren larriak lehen topaketa bat Rifetik kanpo antolatzera eraman gintuen eta, eragozpen administratiboetan kateatuta, Kabilian azaroan aurreikusitako bigarrena ezin gauzatzera.

Hala ere, oztopoak oztopo, euskaldunon eta imazighenen arteko kooperazio linguistikoa sendotu du 2019ak. Horren erakusgarri, besteak beste, honako ekinbideak:

Urtarrilaren 10etik 15era Tangerren Massinissa kultur elkartearekin batera antolatutako esperientzia trukea euskaldunon, rifarren eta kabiliarren artean. Ikusi genuen herri bera bi estatutan, bi alfabeto desberdinekin eta askotariko eragileekin; errealitate konplexua bezain interesgarria. Inspirazio iturri joria.

Lehen hitzordu horretan ezagututako aktibista digital kabiliarrekin urtean zehar izandako online harremanak, Ahotsak.eus-ekin aplikazioa beste hizkuntza batzuetara egokitzeak aukerak aztertzeraino ekarri gaituena.

Tarifita (Rifeko aldaera) alfabeto latindarrez idazteko ikastaroa prestatu du Milouda El Hankarik.

Mustapha El Adak Oujdak unibertsitateko irakasleak hartu zuen parte urriko bigarren Ikastaldian eta idazle eta sortzaile amazighak ekoizpen kulturalera biltzeko proiektua landu du.

Bolivian esperientzia berriak (h)abian

GUARANIAK ETA AIMARAK



BOLIVIA. Uztailean egindako lankidetzak-egonaldian hainbat egitasmo gauzatu ahal izateko bidegurutzean ikusi genituen Boliviako hizkuntza-aktibistak, bultzada eraginkor baten zain. Baina bidegurutze gurutze bide ote orain? Ikusteke baitago Boliviaren etorkizun politikoak segida emango dion aurreko hamarkadan jatorrizko hizkuntzen alde egindako lanari edo, aitzitik, biziberritze-prozesuei gobernuaren babesik gabe ekin beharko zaion aurrerantzean.

Batera zein bestera, euskaldunoi oso izango zaigu aberasgarria herrialde honetako hizkuntzen berri-dinamikei erreparatzea.

Hegoaldeko lautadetatik Iparreko goi ordoki antarreraino zeharkaldian ageri zaizkigu:

Guaraniak Colpa Belgican eta Camirin eskoletan guaraniaren erabilera hauspotzen eta Charagua Iyambaeko autonomia indigenan hizkuntza plana integratzeko lanetan. Unibertsitate Indigena Guarania eta Behe Lurraldeetako Herriena 22

jatorrizko hizkuntzetako ikasleen dibertsitatea kudeatzeko ahalegin ederrean.

Aimarak La Paz en THOA elkartearen bidez sentsibilizazio eta kontzientziazio lanean buru-belarri. El Altoko Unibertsitate Publikoan ikasle eta irakasleak euren ezagutza biziberritze-ekimen praktikoetara aplikatzeko gogoz. Nancy Quispe telebista publikoan hizkuntza indigenen aldarrirako programa gidatzen.

Cochabamban ketxua irakasleak izatetik irakasle ketxuak izaterako bilakaera lantzen maisu-maisu-trak.

Eta Hizkuntzen eta Kulturen Institutuak, guaranien, aimaren eta ketxuena baina baita IPELC-ekoak euren teknikariak hizkuntza planifikazioan trebatzeko helburuz.

Eta ekimen horietan guztietan, proiektio zabaleko kooperazio-mapa osatuz, Garabide parte hartzen ari da.

elkarlanean gurean ere eragiten!

Sentsibilizazio ekintzak

Garabidek urtero proposatzen du hizkuntza komunitate bat eta Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio Graduko ikasleek aukera dute Gradu Amaierako Lan gisa hizkuntza horren biziberritzeari buruzko dokumentala egiteko.

Zenbaki biribila ekarri zigun urte bukaerak: **2019an 20 ekintza antolatu genituen, guztiak doakoak eta irekiak, Euskal Herrian** hizkuntza lankidetzaz zer den eta euskararen biziberritzean duen egitekoa zein den bistaratzeko. Izan ere, horretan jarri dugu indarra Garabiden, **tokiko gizarte eragileekin saretzen euren egitekoan hizkuntza lankidetzaren ekarpena zein den zehazteko** eta elkarlanerako bideak irekitzeko. Estrategia zabalagoan, lurraldetasunari erreparatzeaz gain, **esfortzu berezia egin dugu ekintzok hiriburuetan soilik pilatu ez daitezen** eta mapan argi ikusten da hori. Jarraian ekintza ireki nagusiak azalduko ditugu, baina aipatzekoa da horiez gain sentsibilizaziora bideratutako bestelako ekintza zehatzagoak ere egin ditugula, adibidez, ikastetxeetan edo eragile indigenentzako Ikastaldian euskararen biziberritze esperientziak ezagutzeko bisita didaktikoetan.

Garabide Elkartean euskal herritar ororengana ailegatu nahi dugu eta horretarako garatu dugun tresnetako bat ikus-entzunezkoak dira. Hain zuzen ere, 2015 urtean ekin genion **urtero dokumental bat** ekoiztearen erronkari eta horrek elkarlana du oinarri. **Garabidek urtero proposatzen du hizkuntza komunitate bat eta Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio Graduko ikasleek aukera dute Gradu Amaierako Lan gisa hizkuntza horren biziberritzeari buruzko dokumentala egiteko.** Azken urteotan garatutako lan guztiak gure webgunean daude ikusgai.

2019an Irati Briñas Gastón, Egoitz Díaz Ibargoitia eta Andoni Marquinez Otaegi ikasle arabarrek

“Waye” dokumentala osatu zuten, Mexikoko Yukatango maia edo Maayat’aan-aren alde lan egiten duten hizkuntza aktibistak protagonista dituen. Estreinaldia Miarritzen egin zen urriaren 2an Bia-



rritz Amerique Latine zinema jaialdian eta ondoretik bira egin zen dokumentalaren proiektioarekin batera solasaldi bana eginez Gasteizen, Aramaion, Elizondon, Beran eta Barañainen.

Bestalde, 2018an maputxkeen hizkuntzaren biziberritzea jasotzeko egin genuen **“Mai da bai” filmaren proiektio birarekin jarraitu genuen** 2019an, besteak beste, Tuteran eta Tolosan. Gainera, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian, Bilboko Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdian eta Gasteizko Cortada jaialdian aukeratu zuten dokumentala eta guztietan antolatu ziren topaketak egile gazteekin. Urte hasieran **Eusko Ikaskuntzaren bideo-sorkuntza saria jaso zuen lan honek** eta 2020 urtean ebatziko diren beste-lako izendapenak ere lortu ditu.

Aurrekoez gain, askotariko ekintzak antolatu ditugu: hitzaldiak, erakusketak, elkarretaratzeak, mahai-inguruak... Bi aipatzearen, **Errenteria 11 kolore jaialdiaren baitan argazki erakusketa antolatu genuen bertako Landare tabernan** eta, azaroan, Kolonbiako Cauca egoera salatze eta elkartasuna adierazteko agerraldia egin genuen Oartzunen hainbat gizarte eragile bilduta: Asociación Colombia-Euskadi, EH Bildu, Elkarrekin Podemos Legebiltzar taldea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nazioarteko Lankidetzaz Zuzendaritza, Mundubat Fundazioa, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra eta Oartzungo Udala.

bisita didaktikoak

Euskal Herrian burutzen ditugun formazio proiektuak herren geldituko lirateke hain zuzen ere formazio horietan erreferentzia egiten diegun erakunde, elkarte eta esperientziak bertatik betara ezagutuko ez bagenu. Hori dela eta, ikastaldiaren edizio honetan ere, modulu desberdinetako eduki akademikoak irteera didaktikoekin uztartu ditugu.

2019ko urrian, Bilbotik Donibane Garaziraino eta Tolosatik Tafallaraino ibili gara eskola, hedabide, ekimen kultural eta, orokorrean, euskal kultura, hizkuntza eta identitatearen alde lanean ari diren esperientziak ezagutzen.

Euskaltzaindia Xabier Kintanaren ahotik euskararen estandarizazio prozesuaren xehetasunak ezagutuz hasi genuen irteera erronda. **Gabriel Aresti euskaltegia**, **Kafe Antzokia**, **Kilometroak** edo **Arrasateko AEK** etorri ziren ondotik. Eskoriatzako **Luis Ezeiza ikastetxe publikoan** ere izan ginen eta D ereduaren inplementazioaren alde bere garaian egin zuten lanarekin bakarrik ez, egun aniztasunaren kudeaketan egiten duten lan bikainarekin ere harriturik utzi gintuzten guztiok. **BERRIA** ere ohiko bisita dugu hizkuntza baten erabilera normalizatzeko orduan hedabideek duten garrantzia lantzean eta beste behin eskuak zabalik hartu gintuzten. Garabide Debagoienean kokatua egonik, inguruko kooperatibetan euskara planak ezartzeko egin den lana egin dutenen kontakizuna ezin albo batera utzi. Hori dela eta, lan alorra eta euskararen biziberritzea non baten diren ikusteko **COPRECI** kooperatibara hur-


bildu ginen eta bertan Jaime Bengoa Kontseilu Errektoreko kideak kooperatiban bertan euskara planak nola sortu eta bilakatu diren azaldu zigun. Izan ere, eta **EMUN**-en azpimarratu ziguten bezala, "hezkuntzarekin soilik ez dugu hizkuntza normalizatuko. Hezkuntzak badu bere funtzioa, inportantea da, baina arlo sozio-ekonomikoan ere eragitea estrategikoa da. **Aiaraldea Ekintzen Faktoria** eta Gasteizko **Oihaneder Euskararen Etxea** ere bisitatu genituen. **Tafallako Ikastolako** bisitarekin espazioan bakarrik ez denboran ere bidaiatu genuen, iraganean amets izan zirenak (euskarazko hezkuntza Erriberan) gorpuzturik ikusi ditugulako eta Adituko partaideren batek ere

aipatu zuelako beretako oraindik ametsezkoa zen etorkizuna bizitzen ari zela Euskal Herrian. Erri- gora ekimena gertuagotik ezagutuz utzi genuen atzean Nafarroa eta ekialdean dagoen baina ipar deitzen diogun Euskal Herri horretara egin genuen saltoa. Baiona eta Donibane Garazin **Seaska**, **Erabil kolektiboa**, **Euskoa** eta **Libertimendua** bezalako ekimenak ezagutu ahal izan genituen bertatik bertara. uralera biltzeko proiektua landu du.



HINU

2019 Hizkuntza indigenen Nazioarteko Urtea



Munduan hitz egiten diren 6.700 hizkuntzen %40a hizkuntza hegemonikoek ordezkatzeko dituzte mendea bukatzerako, joera apurtzen ez bada. Hizkuntza larrialdi horren bistan, Nazio Batuen Erakundeak 2019. urtea Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea (HINU edo #IYL2019 ingelesez) izendatu zuen, munduko hizkuntza gutxituak babestu, biziberritu eta hedatzeko premia neurriak hartzea sustatzeko eta, horren harira, **Garabidek ekintza bereziak antolatu zituen urte osoan. Ekintzok bi ardatz izan dituzte: batetik, hizkuntza larrialdiaren inguruko sentsibilizazioa Euskal Herrian eta, bestetik, munduko hizkuntza eragileekin saretzeko ekintzak.** Jarraian aipatuko ditugu ekintza esanguratsuenak.

KORRIKA

2019ko apirilean **KORRIKA 21** ospatu zela baliatuz, bi ekintza gauzatu genituen. Batetik, hizkuntzen biziberritzearen alde lanean gabiltzan euskal eragile desberdinak batu genituen: UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra, PEN Kluba, Orioko Kichwa Otavalo elkarte eta Nafarroa Oinezeko Txikiak Handi ekimena. Guztiok batera **apirilaren 5ean, Tuteralean**, Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtearen 3 kilometroak **egin genituen “HIZKUNTZA INDIGENAK KORRIKAN”** lelopean.

Bestetik, **bat egin genuen ‘Aro berriari, klika’ konpromiso-bildumarekin**, euskararen normalizazioan aurrerapauso berriak emateko AEK-ren ekimena. Bilduma osoa, Garabidek sinatutako konpromisoak barne, webgunean eskuragarri badaude ere, nabarmentzekoa da konpromiso-hartzaileen artean hainbat arlotako gizarte-eragile esanguratsuak daudela, hala nola, alderdi politikoak, sindikatuak, unibertsitateak, Eusko Legebiltzarra, Nafarroako Parlamentua edo Ongi etorri errefuxiatuak ekimena.

“HIZKUNTZA GUTXITUAK, IRAUN ALA BIZI” MAHAI-INGURU SORTA

Gasteizen, Oihaneder Euskararen Etxearekin elkarlanean, hizkuntza gutxituen inguruko mahai-inguru sorta antolatu genuen udazkenean

Korrika bukaeran **Jon Sarasuaren bertso** hau kantatu genuen:

“Boterearen hizkuntzak
hondamakin antzera
mila hizkuntzen zoria
darama heriotzera.
Amildegia hor dago
hurbildu gara ertzera.
Jatorrizko hizkuntzentzat
argi daude bi aukera
geldirik geratzen dena
derrigor doa atzera
hemen korrika bakarrik
joan liteke aurrera
gutxi gara, asko gara
zatoz gurekin batera
iraganetik gerora
garena eraikitza”.

eta euskalgintzako hamaika eragilek parte hartu zuen. HINU aukera ona begitandu zitzaigun iragana ikasi eta aurrera begira **hizkuntza gutxituok ditugun erronken inguruan elkarrekin hausnartzeko**. Beraz, irailetik azarora bitartean, **hiru saio ireki antolatu genituen** iraganaz, orainaz eta etorkizunaz aritzeko.

PENKLUBA

HINUren harira PEN International nazioarteko erakundeak Garabiderekin harremanetan jarri zen Chiapaseko San Cristobal de las Casas-en, Mexikon, maiatzaren 2tik 4ra UNICACH Unibertsitatearekin, INALIrekin (Mexikoko Hizkuntza Indigenen Institutua) eta UNESCOren babesarekin “Etorkizuna hizkuntza indigenetan idazten” topaketan parte hartzeko eskatuz. Baiezkoa eman genion eta Maialen Sobrino garabidetarrak hitzaldia eskaini zuen nazioarteko idazle, ekintzaile eta gobernuetako ehun ordezkarien aurrean. Euskalpen-eko Urtzi Urrutikoetxeak ere parte hartu zuen eta bertako hitzaldi, zein mahai-inguru guztiak biltzen dituen liburua 2020 urtean emango da argitara.



Elkarlana Euskal Herriko eragileekin

Garabideren hiru helburu estrategikoetako bat da Euskal Herriko aktibazio soziala, hizkuntza lankidetzak halaberrez eragin behar baitu etxean. Horretarako auzolana ezinbestekoa denez, lurraldetasunari erreparatu eta gizarteko eragile gakoekin elkarlanean aritzen gara, besteak beste, hezkuntza arloan, komunikabideetan eta eremu digitalean. Ezaugarri eta dimentsio ezberdina duten ekimenak burutu ditugu 2019 urtean eta, denak aipatzea ezinezkoa denez, 6 aukeratu ditugu:

KANALDUDE

Bidarraiko telebistak Euskal Herriko gizarte eragileengana jotzen du modu parte hartzailean “Zuzenean zure esku” programa prestatu eta internet bidez zuzenean emititzeko, baita Hamaika, Goiena eta Xaloea telebistetan ere. GARABIDEk heldu zion erronkari eta hilabetetako lanaren ostean maiatzaren 17an Beasaingo Igartza jauregitik egin zen eztabaidaren zuzeneko emisioa “Nolakoa izan behar luke euskararen nazioarteko lanak?” izenburupean. Programa grabatuta dago eta webgunean dago osorik ikusgai. Mahai-inguruko partaideak:



IRENE LARRAZA
Etxepare institutua



GORKA ESPIAU
Agirre Lehendakaria Center



URTZI URRUTIKOETXEA
PEN Kluba



JON SARASUA
Garabide



IDURRE ESKISABEL
Moderatzailea



PRAKTIKALDIAK ETA GRADU BUKAERAKO LANAK

Urtero eskaintzen diegu unibertsitateko ikasleei euren praktikaldia Garabiden egiteko aukera eta aurten bi kide izan ditugu: EHuko Letren Fakultateko Ainhoa Moron aritu da ikastaldian blogari lanetan eta MUko HUHEZI Fakultateko Jon Flores ikus-entzunezko pilulak egiten.

EGUNEAN BEHIN

Egunean Behin galdera-erantzunen jokoan parte hartzeko eskaera egin genien CodeSyntax-eko lagunei. Gogotik erantzun ziguten eta irailaren 30etik urriaren 6ra Garabide Elkartea izan zen Egunean Behineko laguntzailea. Oso ekimen arrakastatsua izan zen eta, gainera, ordutik martxan dugu “Gara2Dtarrak” taldea

Egunean Behin jokoan. Bata nahi baduzu hau da kodea: 8E9A61.

WIKIPEDIA

Euskal Wikilarien Elkarteari elkarlanean jarraitu genuen 2019an Wikipediari lotutako hezkuntza proiektu baten bidez. Guatemalako UMK Maia Kaqchikel Unibertsitateak “Wikiwuj” izenpean gara-

tu zuen proiektua bertako hiru hizkuntza maia nagusitako (kaqchikel, kiché eta queqchi) wikipediak indartzeko asmoz. Proiektuaren funtsa bertako eskolekin elkarlanean aritzea da 3 hizkuntzotan wikipedia elikatuko duen aktibista digitalak formatzeko.

GUAIXE

Nafarroako Sakanan euskarazko hedabideak sustatzen ditu Guaixe Fundazioak. Garabiderekin harremanetan jarri ziren hizkuntza lankidetzak komunikabideen arloan landu nahi zutelako. Horren ondorio da Mexikoko yukatango maiak aritzen den Yuuyum irratiarekin senidetu izana eta 2020 urtean ikusiko dira horren fruituak.

AHOTSAK

Ahotsak.eus plataformak Euskal Herriko ahozko ondarea katalogatu eta hedatzea du helburu. Garabideren ikastaroetan parte hartzen duten ekintzaile indigenek urtero elikatzen dute katalogo hori eta 2019an elkarlan sakonago baterako lehen pausoak eman ziren: ahotsak plataforma munduko beste hizkuntza gutxituetara hedatu ahal izatea nork bere ahozko ondarea katalogatu eta, aldi berean, plataforma partekatua izateko.

garabide sendotzeko bidean



K O M U N I K A Z I O A

TRESNA PROPIOAK

WEBGUNEA

Garabideren webgunea etengabe moldatzen saiatzen gara egiten dugun lanaren berri ahalik eta hoberen emateko. Behar berriei erantzuteko 2019an atal hauek sortu ditugu:

Agenda: ditugun hitzorduen berri emateko.

Euskal Herrian Mintzo: euskal hedabideetan egiten ditugun agerpenak biltzeko.

Ildo beretik, egiten dugun lana jendartearen zabaltzeko, albis-teen atala indartu dugu. Guztira

44 argitalpen egin ditugu 2019 urtean zehar, gutxi gorabehera lan aste bakoitzeko bat eta jarraikortasun horrek **webgune-
ra izandako bisitari kopurua egonkortzen lagundu du, hile-
ro 400-900 artean.** Bitxikeria gisa, jakin nahi izan dugu zein gailu motatik kontsultatzen den gure webgunea eta orde-nagailua izan da nagusi (bisiten %61,6).

BLOGAK

Allartean: soziolinguistika ar-datz hartuta 19 argitalpen egin ditu Allartean blogariak 2019 urtean eta arrakasta nabarmena izaten jarraitzen du.

**Hizkuntza Bizi-
berritzeko Gida-
ritzari buruzko
Ikastaldia:** Ainh-
hoa Moronek
EHUko Letren
Fakultateko
praktikariak 10
argitalpene-
tan bildu zuen
Ikastaldiaren
funtza eta
bere konta-
kizunak pu-
blikoaren
arreta be-
reganatu
zuen.

SARE SOZIALAK

Urteak bi erronka nagusi ekarri zituen gure Facebook eta Twitter kontuetara: **argitalpenak modu jarraian egitea eta gure ekintza nagusien zuzeneko jarraipena egitea.** Bi erronkak betetzat ematen ditugu eta horrek zenbakitan izan du isla, nabarmen hazi baita sare sozialetan dugun presentzia.

BULETINA

Bi buletin bidali ziren urtearen lehen erdian eta harpidetza kopuruak gora egin bazuen ere buletin jasotzaileen artean edukiak ez zuen interes handirik pizten. Hori dela eta, urte bukaeran **buletinaren forma-tua** birpentsatzeari ekin genion eta 2020rako berrituta ekarriko dugu!

KANPO KOMUNIKABIDEAK

2018an hiru hilabeteko Aditu Ikastaroa antolatzeaz gain (52 ekintza barnebildu zituen), komunikatiboki hazkunde urtea izan zen Garabiden eta 2019a, aldiz, egonkortze urtea izan da. Hizkuntza lankidetzaz ezagutzera emateko ekintza zehatzak komunikatzeaz gain harreman sendoak landu ditugu hedabideekin, kasuan kasu finkatutako helburuen arabera elkarlanean aritzeko.



Irratian “Baipasa” saio berrian kolaborazio iraunkor bat zehazten ari gara.

ematea. Helburu horretan urratsak egiten ari gara eta Garabide eta bere jardueraz ez dira dagoeneko sasoi zehatzeko edo tenporadako gaia.

Atal honetan 2 elementu dira azpimarratzekoak: **“Eragin epea zabaltzea”;** hau da, gure inguruko berriak soilik Aditu edo Ikastaldiarekin ez lotzea. Gure helburua da urte osoan zehar presentzia izatea eta egiten diren hainbat ekimeni, nahiz eta aurrekoak baino apala-goak izan, presentzia handiagoa

Hasi gara garrantzitsuak diren **komunikabideekin adostutako emisioak** egiten. Batetik, Radio Euskadiko “Graffiti” eta “La casa de la palabra” saio erreferentzialetan presentzia zabaldua dugu eta, bestetik, Euskadi


Bitxikeri bat bukatzeko. Lortu dugu, lehenbiziko aldiz, idatzizko komunikabide batean hizkuntza lankidetzaren gaia azala izatea. Azaroan kalera-tutako zenbaki baten Goienak publikatzen duen “Puntua” astekarian, Tosepan-eko plan linguistiko-identitarioa izan zen azalaren eta erreportaje eder baten gaia.



EGI TURA



32



BALANTZE EKONOMIKOA

SARRERAK

Diru-laguntza lehiakorrak	299.558,00€
Hitzarmenak, bazkideak, produktu eta zerbitzuen salmenta	287.502,81€
GUZTIRA	587.060,81€

GASTUAK

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa IV	170.517,50 €
Hizkuntza Gidaritzari buruzko Ikastaldia II	179.735,31 €
Bidaide programa: hizkuntz komunitateekiko lankidetza proiektuak	78.214,22 €
Hegoko diplomaturak	136.175,59 €
Administrazioa	4.221,92 €
Koordinazioa	10.554,79 €
Zabalkundea	8.443,83 €
GUZTIRA	587.863,16€

33

ERAKUNDE BABESLEAK ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Azken urteotako lan instituzionalari esker, udal, enpresa eta erakunde desberdinen babesa lortu du Garabidek. Beharrezko sostengu ekonomikoaz gain, babes instituzionala eta herrien arteko esperientzia elkartrukerako giharra eskaintzen digu indartzen jarraitzen jarraitu beharreko sare honek.

2018an **ahalegin handiena eremu instituzionalean** egin da eta emaitzak eman ditu, GARABIDEk, 2019. Urtean **26 entitate babesle** izan ditu.

Entitate laguntzaileei dagokionez, berriz, **52 izan dira** GARABIDERi eta bere ekimenei laguntza eman dioten era guztietako entitateak.

Sare hau estrategiko bilakatu da Garabiderentzat bai finantzaziorako, baita Euskal Herrira begirako sentsibilizazio ekintzetarako ere eta, oro har, hizkuntza gutxituen arteko esperientzia trukeak, hau da **hizkuntza lankidetzak berak, euskal eragilean agenda eta plan estrategikoetan tokia izan dezan.**

Hona hemen 2019ko Garabideren **erakunde babesleen** –ekarpen ekonomikoa egin dutenak– eta **erakunde laguntzaileen** –diruz bestelako ekarpena egin dutenak– zerrenda. **Bihoakie guztiei gure esker ona.**

Erakunde horiez gain, Garabideko **bazkide edota bo-luntario diren pertsonen ezinbesteko ekarpena eskertu** nahi dugu lerro eta memoria honen bidez.

• BABESLEAK •



• LAGUNTZAILEAK •





943 25 03 97

688 63 24 33

garabide@garabide.eus

www.garabide.eus

[f/Garabide.eus](https://www.facebook.com/Garabide.eus)

[@Garabide](https://twitter.com/Garabide)

[v/Garabide](https://www.youtube.com/channel/UCGarabide)

[y/Garabide Elkartea](https://www.youtube.com/channel/UCGarabideElkartea)